

Hezkuntzaren Teoria eta Historia

1. GAIA: HEZKUNTZA ARLORAKO HURBILPENA

1.1 HEZKUNTZA

Gizakia hobetzea helburu eta gizakiok sortutako esku-hartzea; kolektiboki adostutako ideal sozialen arabera burutu.

Hezkuntza formala: instituzionalizatua, gobernuaren eta momentuan indarrean dauden legeen menpekoa; hierarkikoki antolatua. HHTik hasi eta unibertsitateraino.

Hezkuntza ez-formala: ez dago gobernuaren eskuetan. Antolatua, sistematizatua. Sistema formalek kanpo → ikasketa mota zehatzak. Ez du eskolako ordutegiaren menpekotasunik eta ez dira curriculumaren parte. → Prozesu intenzionala da.

Hezkuntza informala: bizitzan zehar garatu → eguneroko

esperientzia/inguruarekiko erlazioari esker. → intenziorik, antolakuntzari eta sistematizaziorik gabe.

Ezagutza pedagogikoak: teoria eta legeen bitartez, hezkuntza helburuak baldintza onenetan lortzeko erabili beharreko estrategiak zehazten ditu.

Bereizteko irizpideak	Hezkuntza formala	Hezkuntza ez formala
HELBURUAK	Orokorrak, epe luzera lortzekoak	Zehatzak, sektorialak, puntualak
HEZIGALIAK	Homogeneotasuna Motibazio maila txikiagoa	Heterogeneotasuna Motibazio maila altuagoa
HEZITZAILEAK	Nahitaezko titulazioa	Titulaziodunak eta boluntarioak
EDUKIAK	Estandarizatuak Teorikoak eta abstraktuak Faktore-aniztasunera egokitzeko ahalmen txikiagoa	Eduki aniztasuna Behar autoktonoetara egokituak
METODOLOGIA	Zurruntasun maila handikoa	Malgutasun maila handiagoa
ESPAZIOA	Ikasgela	Aniztasuna
DENBORA	Ordutegi finkoak	Malgutasuna
KUDEAKETA ETA FINANTZIAZIOA	Gobernu erakundeak	Iturri anitzak
EBALUAKETA	Ebaluaketa sumatiboa: azken emaitza baloratzen du	Ebaluaketa formatiboa: jarraitutako prozesua baloratzen du

EDUCARE: Hezitzailearen autoritatea (eskola tradizionala) → Kanpotik barruranzko prozesua. Hezitzaileak ikaslea elikatuko du → berak bakarrik du beharrezko elikagaia.

EDUCERE: Ikaslearen aukera (eskola berria eta hezkuntza planteamendu berritzaileak). Ikaslea hezkuntza prozesuaren eragile aktiboa → berak garatuko du bere ikaskuntza prozesua. Hezitzailearen estimulazioa edo gidaritzak jasoko du.

Interakzio diakronikoak: Urrun dauden etapen artean ematen diren hezkuntza esperientziak dira → urteetan zehar ematen direnak.

Interakzio sinkronikoak: Momentu berean gertatzen diren esperientzien interakzioa.

1.1.1-Hezkuntzaren Ezaugarriak

Aztertu ahal izateko, hezkuntza prozesuan gertatzen diren hiru azpi prozesuri erreparatu behar diogu:

Humanizazio prozesua: bi gaitasun bereizten dira eta pertsona batek 2ak izan ditzake. Hezigarritasuna: Ikasteko gaitasuna non izakiak bere hezkuntza prozesua garaitzeko gaitasuna duen → bere burua egituratzeko eta hobetzeko ezagutza berriak bereganatuz. Hezikortasuna: Hezitzaileak besteei irakasteko gaitasuna.

Ekintza eta esku-hartzearen arteko harremana: 2 gizakiren artean gertatu: hezitzailea eta hezigaiak. Hezitzaileak eredu eskaini → hezigaiak autoeraikuntza prozesua garatu. Ezaugarriak:

-Iraunkortasuna: bizitza guztian ematen da. Hezitzaileak esku hartze bat egiten dio eta ikaslea aktiboki garatzen da.

-Intenzionalitatea: Ikasleak aktiboki ikasteko nahia, irakasleak berarengan esku hartuta.

-Komunikazio prozesua: Besteekiko harremana beharrezkoa da ikasteko.

Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua: prozesu sistematizatu eta mailakatua hezkuntza helburuak lortzeko. Ikaskuntza berriak aurreko ezagutzeekin lotuta daude (idazteko, letrak ezagutzeko beharra) → **Ikaskuntza esanguratsua.** Ikaskuntzak hezkuntzaren eragina islatu; jasotako hezkuntza-eragineen ondorioz hezigaiaren aldaketak gertatzen direlako. Eraginek hezkuntza helburuekiko koherentzia.

Estrategia desberdinak:

Instrukzioa: Irakasleak ikasleari edukiak partekatu.

Formazioa: Ikasleek parte hartu, aurreko ezagutzak berriekin lotuz harreman kognitiboa sortuz.

Doktrinamendua: Ikasleari ideologia bat buruan sartu → EZ onartua.

Ikaskuntza esanguratsua→barne motibazioa/ikaskuntza era aktiboan gauzatzea. Erakundeak “ikaskuntza zentro”→“hezkuntza komunitate”. Aldaketaren ezaugarriak:

Puzlearen metafora: Ikaskuntza pieza txiki eta sinpleez osatutako egitura konplexua Adib.: dantza bat ikasteko, lehendik oinarritzko pausuak ikasi behar dira.

Legoren metafora: Ikasiz, jatorrizko ezagutzak baztertu→ ezagutza konplexuagoak bereganatzeko→kontzeptuak eraikitzen eta berreraikitzen ditugu etengabe.

Elkarrizketa edo abesbatzaren metafora: Ikaskuntza norberaren baitan gertatzen den arren, besteekin harremanetan egon behar gara ikaskuntza gertatzeko.

Jarraibideak: oso argiak izan behar dira prozesu hasieratik bukaeraraino.

Gidaritza: Urrezko araua: “ez eskaini inoiz behar baino laguntza gutxiago, ezta gehiago”. **Atsedena:**Ikasketa egoki/edukiak argi uzteko beharrezkoa→denbora/edukien errepikapena.

1.2 PEDAGOGIA ETA HEZKUNTZA ZIENTZIAK

1.2.1-Hezkuntzaren Ezagutza Zientifikoa

Hezkuntza: Praktika/ekintza /**Pedagogia:** Praktika horren gaineko hausnarketa

Pedagogiak lege/teorien bidez, hezkuntza-helburuak baldintza onetan lortzeko metodo/teknikak zehaztu eta aukeratu.

Paid = haur; Ago = gidatzea; Ia = zientzia → Pedagogia = haurren gidaritza aztertzen duen zientzia. Grezia klasikoan pedagogoak esklaboak zen, jabearen semeak hezkuntza-guneetara eramaten zituen.

1.2.2-Pedagogia Zientzia Bihurtzeko Prozesua

1.2.2.1-Hastapen zientifikoaren etapa

XVII. mendea: Zientziak esperientzian eta arrazoian oinarritutako analisisia eta frogatze metodologia erabiltzea bilatzen da. LOCKE.

XVIII. mendea: Mende pedagogikoa. ROUSSEAU.

1.2.2.2-Heldutasun zientifikoaren etapa

XIX. mendea: Pedagogiak helburuei solik ez, bitartekoei ere erreparatzen die. Zientzia gisa sistematizatzea ahalbidetu. HERBART.

1.2.2.3-Etapa zientifikoa

XX. mendea: Pedagogia zientziazat hartu, orduan hartu zuen eredu epistemologikoa, esperientzien datuak sintetizatu eta legeen mendera bihurtzeko.

1.2.2.4-Zailtasunak, errealitatea

Zientzia kategoriazateko zailtasunak; ikerketa-metodologia oinarritutako ezagutza objektibo eta sistematikoki antolatua.

1.2.3-Hezkuntza Zientziak

Teologikoak: Hezkuntzaren Teologia/Hezkuntzaren Filosofia.

Baldintzatzaileak: Hezkuntzaren Biologia, Hezkuntzaren Psikologia, Hezkuntzaren Soziologia, Hezkuntzaren Ekonomia.

Ilustratzaileak: Hezkuntzaren Historia, Konparatutako Hezkuntza.

Normatiboak: Hezkuntzaren Pedagogia

Aplikatzaileak: Didaktika, Eskola-Antolakuntza, Hezkuntza-Orientazioa, Hezkuntza-Plangintza.

2. GAIA: PENTSAMENDU PEDAGOGIKOAREN GARAPENA

2.1-Eskolaren Anlisi Genealogikoa eta Rousseau

2.1.1-Heziketa Prezeptorala Edo Etxekoa (XV.-XVI. mendeak)

Prezeptorea: ume edo nerabe bati hezkuntzan laguntza eta orientazioa ematen zion pertsona. Eredu elitista zen, diziplina mantentzea erraza zen.

2.1.2-Eskola Primitiboa Edo Aurre-Tradizionala (XVI.-XVII. mendeak)

Hainbat adinetako haur talde bati aldi berean irakastea inongo ordenamendurik gabeko tokietan. Errendimendu akademiko baxua.

Kaos-ikasgela zen, planteamendu indibiduala kolektibora aplikatzen saiatu ziren. Educare.

2.1.3-Eskola Tradizionala

Nola konpondu kaos egoera? Espazioa, edukiak, denbora... kontrolatuz; zaintza hierarkikoa ezarriz, diziplina eta boterearekin.

Panoptikoa erabiltzen zen (“*el ojo que todo lo ve*”). Zaindua denak ez daki zaindua dela, botere ikuskorra baina frogaezina. Teknika ezberdinak erabili ziren.

Eskola kontrol eta botere gune bihurtzen da.

Haren oinarri nagusiak:

<u>Magisozentrismoa</u>	<u>Logozentrismoa</u>
<p>-<u>Irakaslea nagusi</u>. Ezagutza antolatu, transmititu eta ebaluatzen du.</p> <p>-<u>Irakaslea boterea da</u>. Diziplina errepresiboa, zigorra. Hark inposatu edukiak, erritmoa, sekuentzia. Irakaskuntzak norabide bakarra. Bakarkako lana.</p> <p>-<u>Ikasleak paper pasiboa</u>. Ezagutza hartu bakarrik, arauen menpekoea.</p> <p>-<u>Espazio eta denbora mugatuak</u>.</p>	<p>-Ezagutzaren antolatze, transmisio eta ebaluazioa.</p> <p>-<u>Programaren garrantzia</u>. Ikasgaietan zentratutako <i>curriculum</i>-a, haurren interes/psikologiari kasurik ez. Ikaslea ezagutzaren hartzaile bakarrik.</p> <p>-<u>Testuliburuaren agerpena</u>.</p> <p>-<u>Pedagogia “kolektiboa”</u>, batz besteko ikasle idealari zuzendurik, ez pertsonalizatua, buruz ikasteen oinarritua, indarra edukietan (ez prozesutan) eta emaitzetan (ez arazo ebazpenetan) jarri.</p> <p>-Ebaluazioa azterketa da, ez jarraitua.</p>

2.1.4-Eskola Post-Tradizionala

XIX. mende amaieratik aurrera sortutako mugimendu pedagogiko guztiak. Ikasleak bilakatzen dira zentro, espazioaren antolaketa aldaketa, ikasleek taldeka zein banaka lan egin.

2.1.4.1-Jean-Jacques Rousseau (1712-1778)

Gizakia berez ona da, baina gizarte modernoak hondatzen du.

Umea zibilizaziotik urrun heztea, galdutako gizarte batetik at, zibilizaziotik urrun. Aristokratak eta familia aberatsetako umeak hezteko beharra defendatu.

Bi obra nagusi: *Gizarte-hitzarmena* eta *Emilio edo Hezkuntzaz*.

Natura: instrukzioak aldatu ez dituen prozesuen multzoa.

Laburtuz, Rousseauk hau defendatzen zuen: Naturalismo pedagogikoa; hezkuntza askatasuna, deskubrimenduaren pedagogia, norbanakoaren ardura eta egindakoaren ondorioen onarpena, umea subjektu aktiboa, zigorra ez erabiltzea, hezitzailearen funtzio gidatzailea, eskola erakundearekiko kritikak, umearen altxorra bere jakin-mina da. **Kuriositatea ikaskuntzarako motorea** da.

Lehenengo hezkuntzak negatiboa izan behar du: “Gizakiak askatasuna eduki behar du nahi duena egiteko, baina ondoren ardura ere erakutsi behar du, egindako ekintzen ondorioak onartzeko”.

Emilio edo Hezkuntzaz Obra

1. Lehenengo liburuak kirol-ikuspegitik deskribatzen du Emilio, 0-2 urte tartean. Rousseauk praktika garaikideak kritikatu zituen, hala nola bendekin egindako haurren inmobilizazioa, haien garapen naturala oztopatzen zuela uste baitzuen.

2. "Arrazoiaren ametsa" terminoa erabiltzen da honetan, eta bi urtetatik hamabi urtetarainoko tartea aztertzen du. Haurrek ezin dute logikoki arrazoitu, eta, beraz, gogor lan egin behar dute zentzumenak, mugimen-trebetasunak, hizkuntza eta beldurra garatzeko. Rousseauk hezkuntza integralaren eta eredu negatiboaren (zigorrik eta agindurik gabe) alde egin zuen, haurrek beren ekintzen ondorioak esperimintatu ahal izateko.

3. Hirugarren liburua Emilioren heziketa espiritualari buruzkoa da, hamabi urtetik hamasei urte arte. Denbora horretan, Emiliok gai ezberdinekiko interesa izango zuen eta karrera bat aukeratu behar izan zuen. Rousseauk nabarmendu zuen garrantzitsua dela herritar bakoitzak ofizio bat ikastea gizartera itzultzeko.

4. Laugarren liburua helduaroko (hamasei urtetik hogeitatera) sentimenduetan edo adiskidetasunean hezteari buruz hitz egiten du Rousseauk pertsona enpatikoak, sentiberak eta giza harremanen konplexutasunak ulertzen dituztenak garatzearen garrantzia azpimarratu zuen.

5. Bosgarren liburukia filosofia politiko eta sozialari buruzkoa da. Rousseauk zalantzan jarri zituen herritarren jarrerak eta gizartean duten parte-hartzea. Emiliok landa-eremu egonkorretan bizi diren herritarrak ordezkatzeko, osotasunez jokatzeko eta familiak babesten dituzte. Rousseauk emakumei buruzko bere ikuspuntuak ere aurkeztu zituen, eta ama eta emazte gisa zuen papera nabarmendu zuen, gurasoek haurren hezkuntzan parte hartzearen alde eginez, irakasle edo tutore pribatuek parte hartu beharrean.

2.1.4.2-Eskola Berria

Haren aitzindari nagusia = Rousseau.

Zer zen? Berrikuntza nazioarteko mugimendua, XIX. amaieran hasi zena eta XX. mendearen hasieran kontsolidatu zena. Uniformetasunetik ihesi, eskola eredu tradizionalari aurre egiteko saiakera ezberdinak barne hartzen dituenak.

Eskola Berriaren Ekarpenak

-Eskola berritzea: Entziklopedismo, didaktismo, formalismo eta autoritarismoaren aurka.

-Hurtzaroaren kontzepzioaren aldaketa: Paidozentrismoa.

-Irakasle kontzepzioaren aldaketa: Orientatzaile, motibatzaile, gidari.

-Berritzapen metodologikoa: Teknika eta irakaste metodo berriak; aktibismoa eta aurkikuntzaren pedagogia.

TRADICIONALean	BERRIANan
XIX. mendearen bukaera eta XX. mendearen hasiera	XX. mendean zehar gaur egun arte
Gizakia, animalia arrazionala	Gizakia organismo adimenduna gizarte ingurunean
Gizarte ondarea transmititzeko beharra. OROIMENA	INGURUNEAREKIKO JARDUERA
EZAGUTZAK	ESPERIMENTAZIOA
Irakasleengan trebetasunak garatzea	Ikasleengan trebetasunak garatzea (eta horien arabera, irakasleek garatu beharrekoak egokitzea)
Metodo logikoak	Metodo zientifikoa
AUTOKRAZIA	DEMOKRAZIA
Berez emandako egia	Aurkitu beharreko egia
Lezioak (errepikapena)	Lan-saioak
Alexandrinismoa	Eskola aktiboak
Ikastea: liburuetakoa errepikatze gaitasuna	Ikastea: arazoak konpontzeko edo ebazteko gaitasuna

Eskola Berriaren Metodologia

-Umeak eroso sentitzea garrantzitsu.

-Printzipio paidozentrikoak:

-Eskolako lana indibidualizatuagoa.

-*Curriculum*-a umearen beharretara egokitu.

-*Self-government*.

-Umea irakaskuntza-ikaskuntzaren protagonista.

-Lan-giro egokirako espazio egokia behar. Altzairu egokiak.

-Testuliburuaren erabilera gutxitu, jarraibide aktiboak erabili.

-Hautzaroaren garapen psikologikoa kontuan hartu.

Eskola Berriaren 7 Printzipio Nagusiak

1. Hezkuntza-prozesuaren helburu nagusia umea prestatzea
2. Umearen banakotasuna errespetatu
3. Umearen interesak kontuan hartu
4. Adin bakoitzak bere izaera du
5. Konpetentzia desagertu behar da, elkarren arteko kooperazioa bultzatu
6. Hezkidetzaren eredu
7. Hiritarra garatzeaz gain, giza-kategoria ere landu

2.1.4.3-Eskola Berriaren Ordezkarri Nagusiak

María Montessori

Haurra errespetatu, haren gaitasunekiko konfiantza izan. Bizitzarako prestatu behar. Esperientziaren eta ekintzaren bidez ikasten du umeak. Umearen nortasuna eta barruko erritmoa errespetatu behar.

Leihakortasuna baztertu, elkar laguntzea bultzatu. Umearen nortasun osoa garatzen da, ez bakarrik gaitasun intelektuala.

Helburuak: umeak askeak izateko prestatu, txikitatik beren burua eta ingurua zaintzen ikasten laguntzea.

Autonomia da askatasuna lortzeko bide bakarra. Isiltasunaren ikasgaia: isilik egon eta kontzentratzeko minutu batzuk erabili, ikasgela ilunpean lasaitasuna eta ordena nagusitzen dira.

Umeak zeregin kolektiboak (garbiketa) eta indibidualak (astero bere burua neurtzea) egin behar ditu.

Haurraren garapena:

Haurtzaro txikia (0-6) (BIZITZAKO GARRANTZITSUENA), haurtzaro handia (6-12), nerabezaroa (12-18), heldutasun gaztea (18-24).

Ikaslearen jarduera librearen printzipioa:

-Hurrei aske jarduten utzi, auto-hezkuntza sortu. Eskolan isilik eta geldirik egon beharra eta diziplina lortzeko zigor/sariak kritikatu.

-Eskoletan ematen den askatasun psikologikoa, norberaren diziplina oinarri.

-Ordenak garrantzi handia du.

Zentzumeneren garapeneren printzipioa

-Adimena esku jardueratik dator.

-Haurrak zentzumen guztien bitartez bereganatzen du mundua.

-Zentzumenak progresiboki landuko dituzten materialak sortu.

Banakotasunaren printzipioa

-Norbanakoaren erritmoan eta jarraipenean oinarritu.

-Irakaslea “zuzendari” da, umeari egokiak diren materialak eskainiz.

Hezitzailearen rola

Garrantzitsua: hazkundera, autodiziplina eta erlazio sozial osasungarriak ahalbidetu. Umeari garapenerako bidea erakutsi.

Materialak

Zentzumenak lantzeko baliagarriak. Praktikatzea, imitatzea, errepikatzea, ordenatzea eta sailkatzea. Errepikapena eta imitazioa ezinbestekoak sorkuntzarako. Materialaren ezaugarriak:

-Ezaugarri bakarra landu: kolorea, forma, luzera... hasieran kontraste handiz

-Graduatua

-Autozuzentzaileak

-Umeari esku (erraz hartu/utzi)

-Estetikoak dira

Hiru arlotan zentratutako lan proiektua:

- Funtzio motorea: jarduera indibidual eta kolektiboak.
- Garapen sentsoriala: manipulatzeko aktibo ahalbidetzen duten materialak.
- Hizkuntza ere ezberdinen garapena: ataletatik osotasunerako bidea.

Sekuentzia: hitz egitea > idaztea > irakurtzea

Irakurketa-komandoak erabili. Arreta deitzeko, esaldi motzak idatzi arbelean (“hau irakur badezakezu, etorri niregana”).

Casa Dei Bambini

Altzairu eta ekipamendua bereziki zaindu. Etxea bezalakoa, bilgune handiak eta intimitaterako guneak konbinatu. Ordena nagusi. Mugimendua eta deskubrimendua ahalbidetu. Giro estetiko, alai eta erakargarria.

Gurean Montessorik izandako eragina

Montessoriren filosofia eskola berriarenarekin nahasturik aurki dezakegu, metodo hau eskola anitzek erabili.

Metodoaren “ortodoxia” zaintzeko hainbat elkarte sortu. Zereginak:

- Materiala banatu, irakasleak prestatu, gurasoei informazioa banatu, LH eta DBHren aplikazioa aztertu.

Célestin Freinet

Bere mugimendua ez teoria hutsa, gizartean eta ikasleen bizitzan txertatu zuen.

- Ikasleak baino helduago izateak ez du esan nahi gaineratik zaudela.
- Umearen jarrera egoera fisiologiko eta organikoaren arabera da.
- Ikasleari aukeratzen laguntzen dion pedagogia da.
- Maisuak umeen arrakasta ahalbidetzeko eskola eskaini behar.
- Lana natural eta berezkoa da umearengan.
- Testuliburua ez da ezagutza iturri bakarra EZ da.
- Eskola kooperatiba bat da.

Ez du metodoaz hitz-egiten, teknikez baizik. Hauek umeen sormena eta ekintza garatzeko baliagarriak izan behar. Tekniken printzipio nagusiak:

-Tanteo esperimentalak

-Lanerako heziketa

-Kooperazioa

-Eskola ingurune eta ingurune sozialaren garrantzia

-Idea horiek praktikan bultzatzeko materialak sortu

Freineten teknika nagusiak ondorengo hauek dira:

-Inprenta

-Testu eta marrazki librea, metodologia naturala

-Eskola-fitxategiak

-Eskolen arteko korrespondentzia

-Eskolako-baratzea

-Lan plana

-Lanerako liburutegia

-Asteko asanblada kooperatiboa

-Hitzaldiak

-Egunkari-murala

2.1.4.4-Aurkezpenetan Landutako Pedagogiak/Pedagogak

Rosa Sensat (1873-1961)

-Paidozentrismoa, baliabideak/metodologia umeari egokitu. Konfiantzak eta errespetuak garrantzia.

-Naturari eta esperimentazioari garrantzia. Umeak naturan hezi.

-Ama hizkuntzari garrantzia; horretan ikasteko aukera.

-Pedagogia aktiboa: praktika eta ez teoria, etengabeko prestakuntzaz.

Maria de Maeztu (1881-1948)

-Eskolak aire zabalean, umeak naturan hezi.

-Hezkuntza bakoitzaren beharretara egokitu.

-Hezkuntzan genero berdintasunaren alde.

-Kulturak eta arteak garrantzia.

-Hezkuntza komunitatearen harreman osasuntsuak.

-Hezkuntza laiko, libre, demokratiko eta publikoa.

-Feminismoa: Garai hartako emakumezkoen papera aldatzea helburu. Espainian feminismoaren aitzindaria da.

-Haurraren autonomia, sormena eta gaitasun kritikoa sustatu.

-Gaitasun handiko irakasleen prestakuntzaren alde.

-Hezkuntza laikoa.

-Hezikidetzatza.

-Metodo aktibo eta jolasak funtsezkoak

Emmi Pikler (1902-1984)

-Mugimendu librea: pertsonak munduarekin dugun lehen harreman-modua gure gorputza.

-Harreman egonkorra: heldu batekin lotura egonkorra sortzen da. Hitzezko eta gorputzezko komunikazioa.

-Arretak: haurrak zaintzeko uneak, elkar ikasteko une gisa.

-Helduen rola: haurrek helduak dituzte erreferente, eta hitzetatik aparteko mugimenduei eta keinuei erreparatzen diete.

Paulo Freire (1921-1997)

-Hezkuntza tradizionala kritikatu, paidozentrismoa erabili.

-Helduen alfabetatzeari garrantzia.

Zapalduaren pedagogia (Pedagogia del Oprimido, 1970):

-Hezkuntza prozesu askatzailea: ikasleak ahaldundu, gizarte-errealitateari buruzko kontzientzia kritikoa garatu.

-Analfabetoari hitzak bere kabuz pentsatzen irakatsi.

Ivan Illitx (1926-2002)

-

Howard Gardner (1943-)

-Arazoak konpontzeko eta produktu baliagarriak sortzeko ahalmena bultzatu.

-Ingurunea: haurren garapenean laguntzeko eta segurtasuna emateko modua ingurunearen bidez lortzen da.

-Jarduera autonomoa eta mugimendu askea: gurasoek ez dute haurra gidatu behar, segurtasuna eman baizik.

-Errespetua eta atxikimendua zainketetan: zaintzailearen figura funtsezkoa da. Atxikimendu segurua defendatzen du.

-Osasun fisikoaren eta jokoaren garrantzia: ez dago garapen fisiko, psikiko eta emozional egokirik zaintza eta oinarritzko premiak aseta ez badaude.

-Zapalkuntzarekin amaitzeko pentsamendua aldatu, zapaltzailearen mailara iritsi.

Ikaskuntza dialogikoa:

-Elkarrizketa eta parte-hartze aktiboa garrantzitsua.

-Eraldaketa pertsonal eta soziala.

-Elkarrizketa: proiektu pedagogiko kritiko, proposatzaile eta itxaropentsu batean garrantzitsua.

-Adimen pluralista: 8 adimen daude.

-Adimen unitarioa baztertu, adimen guztiek garrantzi bera.

-Adimen bakoitza moldagarria da eta garatzen da.

1. *Logiko-Matematika*: Pentsamendu logikoa, zientzia zehatzetan gaitasuna.
2. *Zinetiko Korporala*: Gorputzaren bidez ideia eta sentimenduak adierazi.
3. *Espaziala*: Espazioaren antolakuntza irudikatu eta eraldatu.

Waldorf Pedagogia - Rudolf Steiner

-Hezkuntzak umea hezi gizartean bizitzeko, ez lan-merkatuak (arte, zientzia eta erlijioen oreka)

-Komunitate osoaren inplikazioa bultzatu

-Garapen ebolutiboa errespetatu, etapa bakoitzari helburu batzuk

-Hezkuntza tradizionala alde batera, azterketarik ez, metodologia aktiboa

4. *Naturalista*: Natura behatu eta aztertzeko.

5. *Pertsonen Artek*: Besteak ulertu eta haiekin elkarrengaitzeko.

6. *Linguistikoa*: Hitzak edo hizkuntza egoki erabiltzeko.

7. *Musikala*: Musika-formak bereizteko, eraldatzeko eta adierazteko.

8. *Pertsona Barnekoa*: Bakoitzaren berezitasun eta ahuleziak hautemateko eta nor bere burua ulertzeko.

-Musikak eta arteak garrantzia

-Testuliburuaren erabilera murriztu, jolasei garrantzia

-Kuriositatea bultzatu

-Hezkuntza autonomoa

-Irakaskuntza pertsonala

3. GAIA:

3.1-Hezkuntzaren Garapena Espainian

3.1.1-Institución Libre de la Enseñanza (ILE) / Irakaskuntzarako Erakunde Librea (IEL)

1876an sortua, eskola berria baino lehen. Francisco Giner de los Ríos sortua gizaki berri eta integroa sortzeko (intelektualki biziak ziren gutxiengoa formatu herrialdearen egoera soziokulturala hobetzeko).

Eskola neutro, tolerante eta irekien alde. LH-BH arteko lotura ahalbidetu eta hezikidetzat sustatu.

Ekimen pertsonalak eta irakaslearen esperientzia sortzaileak eskolaren ardatz. Planteamendu pedagogikoa: eskola neutro, integral, aktibo, eta bateratua; eta koedukazioa.

-Hezkuntza integrala: “[...] Su objetivo no se reduce a preparar a sus alumnos para ser un día abogados, médicos, ingenieros, etc., sino para ser ante todo hombres capaces de dirigirse en la vida [...]”.

-Hezkuntza neutroa: “[...] ante todo educar a sus alumnos [...] reverencia máxima debida al niño [...]”.

-Hezkuntza aktiboa: “[...] habituar a los alumnos a tomar la participación debida en su educación, y no esperar del libro y del maestro [...]”.

-Hezkuntza bateratua: LH eta BH arteko batasuna eta jarraikortasuna bultzatzeko beharra. Ordura arte, LHk izaera orokorra zuen, herri xehearentzat. BHk, aldiz, unibertsitaterako prestatzea zuen helburu eta gutxiengo baten esku zegoen.

-Koedukazioa: Eskolan koedukazioa ezartzen aitzindaria izan zen; ordura arte landa eremutan nahastuta egiten zuten arren hirietako LH-BHn sexuagatik bereizten zituztelako: “[...] la coeducación es un principio esencial del régimen escolar, y que no hay fundamento para prohibir en la escuela la comunidad en que uno y otro sexo viven en la familia y en la sociedad. [...]”.

3.1.2-Berrikuntzarako erreferente garrantzitsuak XX. mendean

3.1.2.1-Instrukzio Publiko eta Arte Ederretako Ministerioaren sorrera (1900)

Ministerioaren sorrera arte, hezkuntza Sustapen Ministerioaren barne 45 urtez. Guda Zibila arte mantendu zen (1936).

Ministerio de Instrucción Pública y Bellas Artes (1900-1937) Ministerio de Instrucción Pública y Sanidad (1937-1939)
Comisión de Cultura y Enseñanza de la Junta Técnica del Estado (1936-1938) Ministerio de Educación Nacional (1938-1966)
Ministerio de Educación y Ciencia (1966-1976, 1978-1981, 1981-1996) y (2004-2008)
Ministerio de Educación (1976-1978, 2009-2011) Ministerio de Educación y Universidad 1981 Ministerio de Educación y Cultura (1996-2000)
Ministerio de Educación, Cultura y Deporte (2000-2004, 2011-actualidad) Ministerio de Educación, Política Social y Deporte (2008-2009)

3.1.2.2-Ferrer i Guardia eta Eskola Modernoa (1901)

Ferrer i Guardia

1859an Alellan (Bartzelona) jaiotako pedagogo anarkista. Haurtzaroa apaizekin igaro, esperientziengatik elizaren kontrako jarrera izan.

1898an anarkismoan oinarritutako hezkuntza komite bat sortu, 1901ean eskolako atea ireki. 1909ko aste trajikoko parte izatea leporatu, eraila.

Haren ereduak eragin handia II. Errepublikako eskola arrazionalistetan.

Eskola Modernoa

Eskola arrazional eta zientifikoa zen, irakaskuntza langileen artean zabaltzearen helburuarekin.

Irakaskuntza misto eta laikoa, umeen askatasun eta autonomia, ingurunearekiko harremana, irakaslea gidaria izatea, hezkuntza libertarioa, koedukazio soziala, higiena eta osasuna zaintzea eta azterketak, sariak eta zigorrak desagertzea ziren haren ezaugarriak.

3.1.2.3-II. Errepublika: Berrikuntzarako Nahia

Hezkuntza programa laikoa, 26. artikuluan kongregazio erlijiosoen irakaskuntza zeregina amaitu, hauek irakaskuntza ikastegiak itxi behar. Emakumeen eskubideak aldarrikatu, berdintasunaren alde.

Misio Pedagogikoak

ILE/IEL-ren eraginez II. Errepublikan hezkuntza egitasmoa sortu. 1931ko maiatzaren 29ko Dekretuaren bitartez Misio Pedagogikoen Patronatoa sortu.

Zoriontasunaren kultura bultzatu (jendea poztuz kultura erakutsi, ala nola zinea herri xeheara eraman). Kultura zabaltzean naturarekiko harremanaz egin.

1936

Francok kolpe militarra, 1939an garaile. Diktadura frankista hasi: depurazio prozesua hasi eta izaera politiko, erlijioso eta morala duten karguen leporatzea.

3.2-Garaiko Hezkuntzaren Historia Euskal Herrian

3.2.1-Foruen Garrantzia

Lehen Gerrate Karlista amaitzean foruak berretsi, LHko kompetentziak berreskuratuz. Udaletxeek autonomia maisuak izendatu eta irakaskuntzaren hainbat alderdi kudeatzeko. Estatuaren jarrera oso erasokorra foruekiko.

1859ko uztailaren 4an “Hiru euskal probintzietan instrukzio publikoa konpontzeko oinarriak” ezartzeko Errege Agindua onartu; euskal probintzien aspaldiko aldarrikapenetako batzuk jaso: Instrukzio Publikoaren Probintziako Batzordea sortu; maisuen izendapen eta ordainsariak; Udal Batzordeen izendapenak; Eskola Normalen sorrera.

1876ko uztailaren 21eko legeak foruak bertan behera utzi zituen, lege hauek bertan behera utziz. Hauek bitan berreskuratuz ziren; II. Errepublikan eta 1978ko autonomien estatutua osatzean.

Foruen indargabetzeak mugimendu foruzalea berpiztu, zenbait erakunde kultural eta linguistikoren eskutik: aldizkari eta talde kulturalak jaio; “Lore Jokoak” antolatu; euskarazko hezkuntza sare paraleloa sortu eta finkatu; euskara ezaguera zientifikora sartu; pertsona asko nabarmendu (Arana, Kanpion, Azkue...).

Lore-jokoek euskal kulturaren eta euskararen eragin handia. Haien helburua euskal kontzientzia piztea eta euskarari espazio publikoa ematea. Egitarauak: meza, pilota, bertsolariak... Pisu handiena literaturak, poesiak batez ere.

3.2.2-Euskal Kultura

XIX. mende amaierako marko kulturalaren ezaugarri nagusiak: foruen aldarrikapena eta kultur berpizkundea. Gaztelera irakaskuntzaren aurkako lehen kritikak. Aranak "maketo" deitu maisu erdaldunei. Eusko Ikaskuntzak hainbat biltzar 1918tik aurrera, euskal kontzientzia eta kultura berreskuratzearen.

Espainiar eta Frantziar estatuak euskararen aldeko protoeliteak sortzen ari zirela uste, hizkuntza-batasuna defendatzearen debekua bidea hartu. 1902an Romanonesen Dekretuak euskarazko instrukzioa debekatu.

XX. mendeko lehen hereneko EHko modernizazio prozesuak irakaskuntzan eragina, baina landa guneetan analfabetismo-tasa altuak, bertakoak euskal hiztunak. Aldatzeko Bizkaiko eta Gipuzkoako Diputazioek bi esperientzia: Bizkaiko auzo eskolak (1919), haietatik Arte eta Lanbideen Eskolak sortu. Gipuzkoan landa-eskolak sortu (1930).

Politika bateratua sustatu, 1936an EHko Autonomia Estatutua onetsi arte; gerrak bertan behera utzi.

II. Errepublikan EHren autonomiak gutxi iraun. Kultura Sailak araudi zabala batez ere LH eta Unirako. Helburua euskara eta euskarazko irakaskuntza babestea.

3.2.3-Frankismoa

Euskara debekatu, printzipio zentralistak eta espainiarraz besteko adierazpen kultural ororen aurka neurririk gabeko errepresioa.

3.2.4-Trantsizioa

Zentralismoa hautsi, hezkuntzan deszentralizazio-prozesua hasi. Berrikuntza pedagogikorako mugimenduak, hizkuntza gutxituak eskolara eramateko saiakera. Euskarazko hezkuntza-sare bat osatu ikastolen mugimenduak. Espainiako Konstituzioaren 3. artikulua zioen gaztelania jakin behar zela, baina beste hizkuntzak ere ofizialak zirela haien autonomia-erkidegoetan. Eskolak ikasleen hizkuntza erduetara egokitu A, B eta D ereduak sortuz.

3.2.5-Ikastolen Sorrera eta Garapena

3.2.5.1- 1896-1931 Lehen Ikastolen Sorrera

-Azkueren Ikastetxea (1896-99), Bilbon.

-Miguel Muñoaren Euskal Ikastetxea (1914-36). LH euskaraz egitearen aitzindari nagusi, Donostiako Alde Zaharrean.

-Muñoak euskara bultzatzeko kanpainak hasi: aldizkariak, musika...

3.2.5.2- 1931-1936 Errepublika Garaian Loratutako Ikastola Ereduak

-II. Errepublikan euskaraz Bilbon eta Donostiako ikastoletan, Bizkaiko auzo-eskoletan eta sortu berri ziren Euzko Ikastola Batzaren ikastoletan bereziki.

-Euzko Ikastola Batzaren eredia zabaldu 1932tik 36ra.

- Hezkuntza-proiektu alternatiboa nahi, ofizialaren aurkakoa.

3.2.5.3- 1937-1960 Frankismoaren Gordintasunean Ikastola Isilpean

1939an frankismoa ezartzetik 1945era arte urte gogorrenak euskal hezkuntzarako. Gaztelania ez ziren hizkuntzak debekaturik eskoletan. Euskara, euskal kultura, ikurriña, euskal ikurrak... debekatu, ikastolak klandestino bihurtu.

Ikastolak biziraun, ikasle-irakasleak etxez etxe edo etxe partikularretan. Erbesteratutako andereño batzuek zigorpean lana utzi behar, beste batzuek isilpean euskara irakatsi. Ikastolak sortzeko ekimen pertsonal asko (1942an Elbira Zipitriak Donostian ikastola zabaldu, 1957an Bilbon San Nikolas katekesiko eskola).

3.2.5.4-Elbira Zipitria

Muñoaren ikastolan lan egin, ondoren etxe-eskolaren planteamendua Donostian. Freineten eta Montessoriren eragina (neskak eta mutilak batera adibidez), 1946-69 eredu horren arabera eskolak eman.

Ikasle talde txikiak ziren etxe-eskolak, irakaslearen etxera joanez. Helburu nagusia euskaraz (ama hizkuntzan) alfabetatzea, eta irakurri/idazteko gutxieneko gaitasuna lortuta gaztelaniako alfabetatzea egitea. 9 urtera arte, ondoren gaztelaniazko eskoletara joan behar.

3.2.5.5- 1960-1982 Ikastolak Gorabidean Oso Emankor

60ko hamarkadan ikastolak herri-mugimendu (ekimen indibidualetik kolektibora). Gabeziak (dirua, lokal txarrak, material gutxi...). Helburua euskara eta euskal kultura berreskuratu eta indartzea. Bizkaia eta Gipuzkoan ikastolak legalizatu, EHn zehar sortu.

70ko hamarkadan Hezkuntza Lege Orokorrekin exigentzia gogorak. Erantzuteko ikastola asko kooperatiba bilakatu eta eraikin gehiago sortu. Horretarako diru iturri berriak behar (bazkideak, zozketak...).

Trabak izan arren, Estatuak ezin erantzun eskolatze-tasa handiari, eta adin txikitik (3 urte) eskolatzeak lagundu. Baziren barne-gatazkak.

3.2.5.6-*IKASTOLEN HAZKUNDEA: 1982-1993 Ikastolen Mugimenduan Tirabira Ekonomiko eta Ideologikoak*

Ikastolak ugaritu, herrialdeka Ikastolen Elkarteen bidez antolatu. Egoera ekonomiko zaila, ekimenak bideratu: Kilometroak (Gipuzkoa), Ibilaldia (Bizkaia), Nafarroa Oinez eta Araba Euskaraz. Ikastola gehienak Ikastola Publiko ez-estatal.

3.2.5.7- 1993-2020 Ikastolak Bide Berriak Jorratu Beharrean

90ko hamarkadan bi ildo estrategiko: ikastoletarako hezkuntza proiektua burutzea edo ikastolen kohesioari eustea. Ikasmaterialgintzaren aldeko apustua. Irakasleen prestakuntzak garrantzia. Hiru proiektu: Urtxintxa (HH), Txanela (LH) eta Ostadar Berritua (DBH); hiruetan euskalduntasunetik kultura unibertsalerako bidea jorratu. Euskara sustatzeko Euskaraz Bizi proiektua.

Helburu nagusia euskaraz heztea, 3. maila baino lehenago gaztelaniarik ez. Erronka euskal curriculuma egitea, euskal gizartekide bilakatzeko.

4. GAIA: HAURTZAROAREN EGOERA ETA ESKUBIDEAK

4.1-Haurraren Eskubideak Historian - Haurtzaroa (Ferrán Casas, 1998)

Haurtzaroa ulertzeko hainbat modu daude, eta hauek dira nagusiak:

-Adin tarte bat: Espainiar Konstituzioan adin nagusikoa 18+ urtekoa da (12. art.)

-18 urteko jende-taldea: Demografikoki lurralde jakin bateko biztanleria-multzo bat da.

-Garapenean dauden eta ezaugarri psikosoziobiologiko batzuk dituzten subjektuak: Garapen-egoeran dauden subjektu batzuen ezaugarri psikosoziobiologikoen multzoa. Adin kronologikoa erreferentzia besterik ez da.

-Jendeak esaten edo kontsideratzen duena: Jendeak haurtzaroa dela esan/uste duena, kolektiboki partekatua, historian eboluzionatuz doana. Gizarte-Psikologoen “Representación Social” diote.

4.2-Haurren Eskubideei Buruzko Hitzarmena

Nazio Batuen Erakundeko (NBE) Batzar Nagusiak 1989ko azaroaren 20an onartu. 1990ean lege bilakatu, 20 herrialdek sinatu eta onartzean. Espainian 91ko urtarrilaren 5ean indarrean sartu.

Giza eskubideen nazioarteko trataturik babestuena. Haurren eskubideak eta hauek errespetatzeko gizartearen betebeharrak agertzen dira.

18 urtez berakoen eskubideak 54 artikuluan; 43-54 artikulua gobernu eta nazioarteko erakundeen zereginak zehaztu eskubideak betetzearren. Eskubide batzuk hauek dira:

-Haurren indarkeria/esplotazio guztien aurka babesteko eskubidea.

-Hezkuntza/Osasun-laguntza jasotzeko eskubidea.

-Garapen fisiko, mental, espiritual, moral eta sozialerako bizi-maila egokia bermatzen duten gizarte-politikak baliatzeko eskubidea.

Eskubide guzti-hauek lau printzipiotan oinarritu dira, ondorengo hauek direnak:

-Diskriminaziorik eza, haur guztiek eskubide berberak dituzte.

-Haurraren interes gorena; haurrari eragin diezaiokeen edozein erabakik kontuan hartu behar ditu.

-Bizitzeko eskubidea, biziraupena eta garapena; hau da, bizitzeko, garatzeko eta bizitzan potentzial handiena lortzeko eskubidea.

-Parte-hartzea; eragiten dieten erabakiak kontsultatu eta iritzia kontuan hartzeko eskubidea.

Guzti honetaz gain, hiru hautazko protokolo era badaude:

-Gatazka armatuetan haurren parte-hartzeari buruzkoa.

-Haurren prostituzioa eta pornografian haurren erabilerari buruzkoa.

-Komunikazioen prozedura bati buruzkoa.

Hitzarmen hau defendatzeko NBEan Haurren Eskubide Batzordea dago. Estatuek hitzarmena betetzen dutela egiaztatu eta hauen jarraipena egitekoa da. Batzorde honen ohar orokorrak baliagarriak dira politikariek, irakasleek eta abarrek haurren eskubideak behar bezala interpretatu eta aplikatzen direla jakiteko.